

Asteartetik desagertuta zen berrobitarra aurkitu dute

Leitza eta Andoain arteko herri bide batean aurkitu zuen atzo arratsaldean pertsona batek; larrialdi zerbitzuek Andoaingo anbulatoriora eraman zuten, onik //3

Mugikortasun jasangarria sustatzeko, hainbat jarduera

Tolosako Udalak bide heziketa saioak edota bigarren eskuko azoka antolatu ditu, Zumardia eta Ingurumen Zentroarekin //2

Izena aldatu diote Joxan Tolosa Pilota Txapelketari

Amezketako Txapeldunen Buruz Buruko Txapelketa izango da aurrerantzean; igandean jokatuko dituzte finalak, 17:00etan hasita //6



Tolosako Plaza Zaharrean egin zuten eskualdeko arraunlariei eskainitako ongietorria, herenegun. LEYRE CARRASCO

Euskotren Ligara igo da Tolosaldea

TAK-ek Hondarribiaren lekua hartuko du hurrengo denboraldian, igoera faseko bi egunetan gailendu ostean; ongietorria egin diete arraunlariei Tolosan //7



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Mugikortasun jasangarria sustatzeko jarduerak antolatuta

Mugikortasun Astearen barruan Tolosako Udalak hainbat ekimen prestatu ditu; bide heziketa saioak, bigarren eskuko bizikleten azoka eta 'Bizikletaz adinik ez' jarduera

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Europa mailan, hilaren 16tik 22ra ospatzen da Mugikortasun Astea, eta Tolosako Udalak ere bat egin du, Ingurumen Zentroarekin eta Zumardia elkartearekin elkarlanean arituz. Herri jasangarriagoa izateko politika berdeen aldeko apustu argia egiten dutela esan du Patxi Amantegi Tolosako Udaleko zinegotziak. Mugikortasun eredu berriak eta jasangarriak sustatzen, oinezkoentzako espazioak berreskuratzen eta egokitzen, eta ahal denean handitzen ari direla adierazi du.

Garraio estrategia jasangarriak sustatu nahi dituzte udaltik, eta hori horrela, ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte. Hilaren 25ean, larunbatean, azoka berezia egingo dute Zumardiaundia parkean, Zumardia elkartearen laguntzarekin.

Zumardia elkarteak azken urteetan kirola eta naturarekin lotutako aktibitateetan zentratuta ari da lanean, eta kasu honetan, bigarren eskuko bizikleten azoka antolatu dute. Tartean, tailerra eta txangoa ere egingo dituzte. Iker Kortejarena Zumardia elkarteak kideak esan duenez, «posible bada», materiala egunean bertan bilduko dute. 09:00etan hasiko dira materiala jasotzen eta 10:00etan irekiko dute azoka 14:00ak bitarte. Tartean, 12:00etan, bizikletako tailerra egingo dute. Bizikletak nola mantendu, bizikleta zaharrei bizitza nola luzatu... erakutsiko diete bertaratzen direnei, eta txango bat ere egingo dute, 10:30ean. «Ibilbide erraza izango da», gehitu du Kortejarenak.

Bizikletak, patineteak, skateak, patinak edo gai bereko materiala da eraman daitekeena azokara, eta egunean bertan eraman ezin dutenentzat, gaur, asteartea, Zerkausan egongo dira materiala jasotzen; 10:00etatik 12:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara.



Ostiralean, Zumardiaundia parkean aurkeztu zuten Mugikortasun Astea. E. MAIZ

BIDE HEZIKETA

Ikasleei begira bide heziketaren inguruko saio batzuk antolatu dituzte: «Gazteak sarritan patinekin arrisku egoerak sortuz ibiltzen dira, eta horiek ekiditeko saio berezi batzuk antolatu ditugu», zehaztu du Iñigo Muñoz teknikariak. Horretarako material didaktikoa sortu dute, eta Tolosako ingurumen Zentroaren bitartez landuko dute ikastetxeetan.

Horrez gain, garraio publikoari garrantzi berezia eman nahi izan diote. Eskualde mailan dagoen garraio publikoko zerbitzuen egutegiak eta ordutegiak publikatzea aurreikusi dute Tolosako Udaleko web orrian. «Denen eskura izateko. Eta ez bakarrik Tolosatik pasatzen den hiri-busarena, baizik eta lotura guztiak, hau da, eskualdeko beste herrietara edo Donostiara joateko», gehitu du Muñozek.

EKIMEN BERRIA

Bizikletaz adinik ez ekimen berria jarriko dute martxan, hilaren 29an. Adinekoei eta aniztasun funtzionala dutenei bizikleta gerturatu nahi diete. «Triziklo berezi batzukekarriko dituzte gidari batekin, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak buelta bat eman ahal izateko». Mugi ekimenaren barruan egingo

dute, eta Real Sociedad Fundazioaren lankidetzari esker egingo dute.

Bukatzeke, hilaren 22a, asteazkena, nazioarteko autorik gabeko eguna da, eta hainbat ekimen egingo dituzte kalean.

«Aldaketa klimatikoari tokikotasunetik eta era integralean erantzun behar diogula sinetsita gaude», adierazi du Amantegik. «Mugikortasun jasangarriaren bidean mugikortasun plan berria, guretzat estrategikoa dena, jada martxan daukagu», dio. «Garraio publikoa indartu eta hobetu beharreko lan ildoak izanik, garraiobide jasangarriagoak erabiltzeak onura izugarriak dakartza osasun ikuspegitik, eta baita ingurugiro ikuspegitik ere», gaineratu du.

Hiribus elektrikoa ezarri dute herrian herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko. Autobusaren ibilbidea eta ordutegien aldaketak txertatzeko aukera aztertzen ari direla azaldu du, eta Hiribusa Mugi txartelean txertatzeko lanean ari dira: «Mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu honetan, Mugikortasun Astea aukera ezin hobea da, herritarren artean mugikortasun eredu berriak sustatzeko, herritarrek sentsibilizatzeko eta elkarrekin alor honetan aurrerapausoak emateko».

Autobus zerbitzuan adostutakoa ez betetzeagatik, azalpen eske

Amasa-Villabonako Udalak gutun bat bidali du Gipuzkoako Foru Aldundira, Lurraldebuseko autobus zerbitzuan egitekoak ziren aldaketak momentuz gauzatu ez dituztelako

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udala kexu agertu da Lurraldebusek eskaintzen duen zerbitzuan hitz emandako aldaketak gauzatu ez dituztelako. Udan, zehazki, uztailaren 15ean, udaleko ordezkariak Donostiako Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun saileko egoitzan egin zen bileran parte hartu zutela ekarri dute gogora. Bertan, Buruntzaldeko autobus zerbitzu publikoaren emakida berriaren barruan sartzen diren beste hainbat herrietako udal ordezkariak ere izan ziren, eta tartean ziren, baita Irurako udaleko ordezkariak ere.

Bilera hartan, Villabona eta Irurako udalek egindako eskaerari erantzun positiboa eman ziotela aldundiko ordezkariak azpimarratu du Amasa-Villabonako Udalak: «Irailean Tolosa-Donostia herriz herriko BU-07 autobus zerbitzuaren maiztasuna 90 minutukoa izatetik, berriro ere 30 minutukoa izatera pasako zela hitzeman zuten». Ondorioz, «udalak herritarrei aldaketa hori emango zela jakinarazi zien, aldaketa egiteagatik poztasuna adieraztearekin batera», nabarmendu dute.

Behin hori horrela iragarrita, aldundiko Mugikortasun sailak eta Lurraldebusek irailaren hasieran publikoki aurkeztu zituzten Buruntzaldeko zerbitzu ez-

berdinetako aldaketetan, ez zuten aipatutako aldaketa txertatu; «eta udalak ez zuen inolako azalpenik jaso», esan dute.

Egoeraren aurrean, hilaren 6an, Amasa-Villabonako Udalak azalpenak eskatzeko mezu bat bidali zuela Aldundiko Mugikortasun sailera azaldu dute; «baina, gaur-gaurkoz aldundiak oraindik ez du erantzunik eman», argitu dute. Erantzunik jasotzen ez zutela ikusita, hilaren 14an, Beatriz Unzueta Amasa-Villabonako alkateak ofizialki gutun bat bidaltzea erabaki zuela eman dute ezagutzera.

INSTITUTURAKO AUTOBUSA

Amasa-Villabonako Udalak Tolosako Orixe BHI Institutura doazen ikasleen familien aldetik kexak jaso zituen, pasa den astean. Hainbat erabiltzaile udalarekin harremanetan jarri dira, Aiztondotik eta Villabonatik ikasleak Tolosako Orixe BHI Institutura joateko zuten autobus zerbitzua bi autobusekoa izatetik bakarra izatera murriztu dela adieraziz.

Autobus bakarra izateak ikasleak institutura garaiz iristeko arazoak sortzen dizkiela salatu dute familia horiek. Hau horrela izanik, Beatriz Unzueta alkateak, gai hau ere aipatzea erabaki du aldundira bidali berri duen gutunean, «erabiltzaileek egiten duten eskaerarekin bat eginez».



Lurraldebuseko autobus bat. ATARIA



Berrobi inguruko mendietan aritu dira bilaketa lanak egiten larrialdi zerbitzuetako kideak. SEGURTASUN SAILA

Onik aurkitu dute asteartetik desagertuta zegoen gizonezkoa

Pertsona batek aurkitu zuen pasa den asteartean Berrobin desagertu zen 33 urteko gizona Leiza eta Andoain arteko herri bide batean, atzo arratsaldean, 15:00ak aldera

Erredakzioa Berrobi

Ertzaintzak jakitera eman duenez, pertsona batek aurkitu zuen atzo arratsaldean pasa den asteartetik desagertuta zegoen 33 urteko berrobitarra. Leitza eta Andoain arteko herri bide batean topatu zutela esan dute. Gurutze Gorriko kideek Andoaingo ambulatiora eraman zuten segituan, onik.

Desagertu zenetik segurtasun saila bere bila ibili da inguruko mendietan. Larunbat arratsaldean aurkitu zuten bere motorra eta motxila bat, mendian, eta inguru horretan aritu dira bilaketa lanak egiten azken egunetan larrialdi zerbitzuko kideak nahiz boluntarioak.

BERROBIRA BERTAN BEHERA

bira Krosa, baina herri osoa desgertuta zegoen herritarraren bila ari zenez, egokiena proba bertan behera uztea zela erabaki zuen Ibin Kirol Klubak, momentuz.

Antolatzaileen asmoa krosa aurrerago egitea da, eta egutegia aztertzen ari dira horretarako. Aurten Berrobira Krosa egin dadin saiaturko direla gaineratu dute, baina ez dela ziurra posible izango den ere azaldu dute.

Alzheimerraren Munduko Egunaren harira, hainbat jarduera

Bihar eta etzi, film baten proiektzioa eta hitzaldia izango dira Tolosako kultur etxean, besteak beste Buru Bihotzez elkarteak eta Afagik antolatuta

Irati Saizar Artola

Alzheimerraren Mundu Eguna da gaur eta horren harira, Tolosaldeko Buru Bihotzez elkarteak *¿Y tu quien eres?* filmaren proiektzioa iragarri du biharko: Tolosako kultur etxean izango da, 19:00etan. Horrez gain, Afagi elkarteak, Tolosako Udalaren laguntzaz, *Alzheimerrarekin elkar-bizi* izeneko hitzaldia antolatatu du ostegunerako; hau ere kultur etxean izango da, 18:00etan. Hizlariak Koldo Aulestia Afagiko lehendakaria eta Alaitz Iriarte Afagiko psikologoa izango dira.

Bestalde, dementzia dutenen eta haien ingurukoen bizi kalitatea hobetzeko programa bat prestatu dute Igone Etxeberria Psikologia Fakultateko irakasle eta ikertzaileak eta Asier Arrizabalaga fisioterapeutak: *Dementzia Bizitzen*. Programa hau Buru Bihotzez elkarteak sustatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

lagunduta jarri nahi dute mar-
txan irailean zehar.

TAILERRAK

Bestetik, Afagi elkarteak alzheimerre edo beste dementziaren bat hasierako fasean duten pertsonentzat psikoestimulazio kognitiboko tailerra eskainiko du. Urrian hasiko da, eta Harizpe gizarte zentroan egingo da.

Helburua gaixoen eta haien familien bizi kalitatea hobetzea da, eta parte hartzen dutenek funtzio kognitiboak estimulatu eta gaitasun funtzionala landu ahal izango dituzte, beraien autonomiaren mantentzea ahalik eta gehien luzatzeko.

Tailerrak hamar hilabeteko iraupena du eta interesa dutenek izena eman aurretik elkarte-ko profesionalekin hitzordua eskatu beharko dutela azaldu dute. Horretarako, *afagi@afagi.eus* helbide elektronikora idatzi edo 943 297 188 telefono zenbakira deitu beharko da.

Pintxo tertulia, kilometroak irudikatzeko

Irati Saizar Artola Ibarra

2022an Ibarra ospatuko dira Kilo-
metroak, eta lantzen hasteko,
pintxo tertulia antolatu dute os-
tiralerako: 18:00etan izango da,
Ibarako plazako aterpean, pin-
txo batzuen bueltan. Kilo-
metro-
en ereduaren inguruan eta urte-
an zehar egingo diren ekintzen
inguruan hausnartuko dute,
besteak beste.

Ostegunera bitarte aukera izango da izena emateko. Hona-ko bideak erabili ahalko dira: *jozaita.kilometroak@uzturpe.eus* helbidera idatzita, 669 025 330 zenbakira *whatsapp* bat bidalita

edota labur.eus/pintxotertulia
loturan izena emanda. Josi
Ozaita Kilometroetako koordi-
natzaileak parte hartzeko deial-
dia egin die herritar guztiei, gu-
raso, ikasle ohi zein eragile ez-
berdinei. «Ez dugu nahi soilik
ikastolaren jaia izatea, baizik eta
herri osoarena», esan du.

Pintxo tertulia horretan, zortzi pertsonako mahaietan bilduko dira, eta ordu eta erdiz, bi lan le-
rroren inguruan hausnartuko dute, Ozaitak azaldu duenez: «batetik, nolako kilometroak nahi ditugun, ereduari buruz hausnartuko dugu, eta, bestetik, eredu hori praktikara nola era-

man pentsatuko dugu, zein ekitaldi egin nahi diren bai urtean zehar eta baita urriaren 2an ere».

AZOKAN POSTU ETA GUZTI

Pasa den igandean ospatu zen Ibarako Azokan, Kilometroetakoko postua jarri zuten, girotzen joateko. Bertan, pintxo tertulian izena ematen zutenei arkatx bana eman zitzaizen, puntan hazi batzuk dituenak. «Ametsak idatzi eta hazia ereiten duenak uzta jasoko duela jarri genuen banatu genituen arkatx horietan». Bide batez, sortu ditugun batzordeetan izena emateko aukera ere izan zuten gerturatu zirenek.



Igandeko azokan horrelako arkatzak banatu zituzten. ATARIA

Irailaren 30ean bukatuko da Suspertu Tolosa bonuak erabiltzeko epea

Maiatzean jarri zituen 8.000 bonu salgai Tolosako Udalak; 'Suspertutolosa.eus'-en deskargatu daitezke.

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak 8.000 bonu jarri zituen salgai maiatzean zehar Suspertu Tolosa kanpainaren barruan, eta hauek kontsumitzeko epe-muga irailaren 30a dela gogorarazi du.

Bonuak emailean topatzeko zailtasunak izanez gero, erosle guztiek hauek berriro deskargatzeko aukera dute *Suspertutolosa.eus* webgunean, beren erabiltzaile eta pasahitzarekin saioa hasita. Derrigorrezkoa izango da bonuak inprimatuta eramatea horiek erabiltzeko.

Edozein zalantza argitzeko 943 69 75 21 telefono zenbakira deitu edota info@suspertutolosa.eus helbidera idatzi ahalko da.

Tolosako Udalak COVID-19aren ondorioak arindu eta ezohiko egoerari aurre egiten jarraitzeko hartutako neurrietako bat da bonuena. 120.000 euro bideratu dituzte kanpainara eta 162 saltokik eman zuten izena.

Iraileko aldapari laguntzeko, pagotxa

Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo dendetan eskaintza bereziak izan dituzte asteburuan; kaleak jendez bete dira, aukera baliatzeko gogoz

Erredakzioa

Iraileko aldapa alaitzeko moduko eskaintzak izan dira asteburuan eskualdean. Tolosan Braderie azoka egin zuten, TolosandCo merkatarien elkarteak antolatuta, eta herriko 68 saltokik hartu zuten parte. Beharpenak atera zituzten denda kanpoaldera, eta eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, goizean jende asko ibili zen Tolosako kaleetan barrena. Arratsaldean ere saltoki gehienak zabalik egon ziren.

Braderie azoka, komertzio txikiak Tolosari ematen dion biziaren isla dela dio TolosandCo-k, eta horregatik elkarteak herrira gerturatu eta Tolosako

komertzio txikian kontsumitzeko hautua egitera gonbidatu zituen herritarrak.

Villabona eta Zizurkilgo saltokiek ere izan zituzten eskaintza bereziak, eta bi herri horietan ere herriko dendetan erostearen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten.

Stock Azoka egin zuten ostiralean eta larunbatean, eta Oria merkataria elkarteak 18 saltokik hartu zuten parte.

Kalera atera zituzten stockean geratu zaizkien salgaiak, eta prezio onean herritarren eskura jarri zituzten.

Bigarren urtez antolatu dute azoka eta iaz izan zuen arrakasta ikusita animatu dira aurten ere gauza bera egitera.



Larunbatean egin zuten Braderie azoka, Tolosan. IRATISAIAR



Bigarren aldiz egin dute Stock Azoka, Villabona eta Zizurkil. ENERITZ MAIZ



MENDIZ MENDI, PRESOEN ALDE

Iaz beste modu batera ospatu bazen ere, aurtengoan betiko moduan ospatu dute Mendiz Mendi Etxera ibilaldia. Lau ibilbide zeuden aukeran eta 232 pertsonak hartu zuten parte. Nagore Esnaola antolatzaileak esan du beste urteetan baino jende gutxiagok hartu zuela parte: «Eguraldiak ere izan du eragina, eta bestetik, pandemia dela eta jendeari oraindik kostatzen zaio horrelako ekintzetan parte hartzea». IRATISAIAR



BIZI OSORAKO ZIGORREN AURKA

Larunbatean euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzeak egin zituzten Tolosaldeko hainbat herritan, bizi osorako kartzela zigorra ahalbidetzen duen 7/2003 legea bertan behera utz dezatela eskatuz. Arrasateko 31 kilometroko martxaren partez egin zituzten herriz herriko elkarretaratzeak. Salatu zuten, azken asteetan, Sare Herriarrak, eta bereziki Arrasaten arlo horretan lan egiten dutenek «presio izendaezina» jasan dute. ENERITZ MAIZ

Ulin, 700 urte geroago

Beotibarko Gudaren 700 urteurrenaren harira, Berastegiko, Leitzako, Larraungo, Lekunberriko eta Lizartzako udaletako ordezkariak Uli mendian bildu dira

Erredakzioa

Herenegun bete ziren 700 urte Beotibarko Gudatik, eta urteurrena baliatuz, Berastegiko, Leitzako, Larraungo, Lekunberriko eta Lizartzako udaletako ordezkariak Uli mendian elkartu ziren. Duela zazpi mende arbasoak urtero Uli mendiko eremu horretan biltzen zirelako, hain zuzen, «tregoak egiteko, akordioak lortzeko eta bakeaz hitz egiteko».

Idea bat aldarrikatzeko elkartu ziren, besteak beste, Amaia Azkue Berastegiko alkatea, Mikel Huarte Larraungo alkatea, Mikel Zabaleta Leitzako alkatea, Jone Zubeldia Lizartzako zinegotzia eta Mikel Betelu Lekunberriko zinegotzia: «Duela hainbat mende bezala gaur egun ere denak nazio bereko herritarrek garelako, anai-arrebak garelako eta hau ez delako mugako lurraldea ezta gaizkileen muga ere, euskararen gunea baizik, milaka urtez guztion elkarbizitzarako habia, hain zuzen».

Hori dela eta, Ulin bildu ziren udalerrietako ordezkariak protokolo bat sinatu zuten, eta horren bidez, kultura eta gizarte ongizate proiektuetan eta, oro har, bizilagunen bizi baldintzak hobetzen dituzte eta eskualdeko herri eta haran guztien adiskidetasuna eta bizikidetzaren sustatzen lagunduko duten proiektuetan lankidetzan jarduteko borondatea adierazi zuten.

Ulin bildu ziren udalerrietako ordezkariak protokolo bat sinatu zuten, eta horren bidez, kultura eta gizarte ongizate proiektuetan eta, oro har, bizilagunen bizi baldintzak hobetzen dituzte eta eskualdeko herri eta haran guztien adiskidetasuna eta bizikidetzaren sustatzen lagunduko duten proiektuetan lankidetzan jarduteko borondatea adierazi zuten.



Udaletako ordezkariak, herenegun, Uli mendian. ATARIA

Amasa-Villabonan eta Ibarra azoka bereziak egin dituzte asteburuan; Ibarra, ohi bezala, piperra izan da nagusi; Villabonan Zunbeltz elkarteak irabazi du Isats Gisatu Lehiaketa

Azokak protagonista

E. Maiz - L. Carrasco

Ibarra / Amasa-Villabona

Azokak jarri dute giroa asteburuan Amasa-Villabonan eta Ibarra. Azken honetan, iazko etenaldiaren ostean, Emeterio Arrese parkean eta Erraketistak frontoian jarritako postuekin burutu zen herenegun XXI. Ibarra Azoka, Udalak eta Hauspoa elkarteak antolatuta.

30 postu ingurutan, elikagaiak eta artisautza produktuak izan ziren, beti bezala, Ibarra piperra ardatz hartuta. Hori bai, aurreko urteetako azoketan ohikoak ziren lehiaketak eta tailerrak ez dira egin aurtengoan.



Ibarra 30 postu inguruz gozatzeko aukera izan zen. LEYRE CARRASCO

ISATS GISATUA

Villabonaren kasuan, Irrintzi elkarteak antolatuta, XXVI. Azoka Berezia egin zuten larunbatean Errebote plazan. 28 artisautza eta elikagai postu jarri zituzten plazan, eta bertan ere jende ugari ibili zen postuz postu.

Azoka honetan ohikoa den moduan, Isats Gisatu Lehiaketa ere egin zuten. Epaimahai lana Elena Lazkano, Arantxa Lazkano, Eneko Amundarain, Ander Goikoetxea eta Gorka Egurennek egin zuten, eta maila «ona» izan dela nabarmendu zuten. Bada, Zunbeltz elkartea izan zen irabazlea, eta atzetik sailkatu ziren Urkamendi eta Villabona kirol elkarteak. Sari horiez gain, Irrintzi elkarteak, hiru postu onenei ere saria eman zien: Lasako Etxebesteak ekoizleak, Altsasuko Katealde eta Segurako Gure Ezitia.



Zunbeltz elkarteak irabazi zuen Isats Gisatu Lehiaketa. LEYRE CARRASCO



1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera



mendexpark.com

688 85 62 83

MENDEXA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 SANTANA ESNEKIAK

Fruitu gorri, marrubi eta yogur naturalez osaturiko opari sorta! Baserritik zuzenean % 100 naturalak!



685 79 61 74

Kortezubi

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

1. jardunaldia

Lauburu Ibarra	3
Otxartabe	3

Sailkapena

1. San Juan	3p
2. Anaitasuna	3p
3. Tafa	3p
4. Villa de Quel	3p
5. Mahastiak Labastida	3p
6. Patatas Gomez Sala	3p
7. Zierbena	1p
8. Otxartabe	1p
9. Colo Colo	1p
10. Lauburu	1p
11. Tauste	0p
12. Esc. Ciu. de Guadalajara	0p
13. Juventud del Circulo Cat.	0p
14. Ibararte	0p
15. Pinseque	0p
16. Dehesa Villalba	0p

Hurrengo jardunaldia
Mahas. Labastida (5) – **Lauburu (10)**

HIRUGARREN MAILA

1. jardunaldia

Tolosala	3
Jarrilleros	1
Santurtzi	1
Laskorain	6

Sailkapena

1. Aurrera de Vitoria	3p
2. Laskorain	3p
3. Mondrate	3p
4. Tolosala	3p
5. Eskoriatza	3p
6. Antiguoko	3p
7. Gernikako Lagunak Xailbor	1p
8. Batzarre	1p
9. Afantxo Pesc. Ferreres	1p
10. Elorrioko Buskaintza	1p
11. Almi Elorrietako	0p
12. Gora	0p
13. Jarrilleros	0p
14. Lagun Onak	0p
15. Kukuyaga Etxebarri	0p
16. Santurtzi	0p
17. Sasikoa Durango	0p

Hurrengo jardunaldia
Laskorain (2) – Almi Elorrietako (11)
Afantxo Pesc. F. (9) – **Tolosala (4)**

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

3. jardunaldia

Nueva Montaña	0
Tolosa CF	8

Sailkapena

1. Bizkerre	9p
2. Arratia	6p
3. Aurrera de Vitoria	6p

4. Osasuna B	6p
5. Athletic C	6p
6. San Ignacio	6p
7. Añorga	6p
8. Monte	4p
9. Oiartzun	4p
10. Tolosa CF	3p
11. Real Sociedad B	3p
12. Rela Racing B	1p
13. Mutilvera	1p
14. Nueva Montaña	0p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (10)

Añorga (7)

HIRUGARREN MAILA

1. jardunaldia

Portugalete	6
Tolosa CF	0

Sailkapena

1. Alaves B	12p
2. Cultural de Durango	10p
3. Vitoria	8p
4. Pasaia	8p
5. Portugalete	7p
6. Urduliz	7p
7. Leioa	7p
8. Anaitasuna	7p
9. Amurrio	6p
10. Beasain	6p
11. San Ignacio	6p
12. Aurrera	6p
13. Barakaldo	5p
14. Santutxu	5p
15. Lagun Onak	3p
16. Deusto	3p
17. Basconia	2p
18. Beti Gazte	1p
19. Uritarra	0p
20. Tolosa CF	0p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (20)

Beti Gazte (18)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

1. jardunaldia

Ostadar	1
Tolosa CF	1

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

1. jardunaldia

Intxurre	0
Real Sociedad	18

GORENGO MAILA GIZONAK

2. jardunaldia

Astigarragako Mundarro	3
Billabona KE	0
Tolosa CF	2
Danena KE	1

LEHEN MAILA ERREGIONALA

1. jardunaldia	
Intxurre	(atsedena)


Txapelketaren izen aldaketarekin iritsiko dira igandeko finalak

Amezketako Txapeldunen Buruz Buruko Txapelketa bihurtu da Joxan Tolosa Txapelketa

Imanol Garcia Landa
Amezketak

Asteburuan atsedean hartu ondoren, datorren igandean, irailak 26, jokatuko dira orain arte Joxan Tolosa Txapelketa izena izan duen buruz buruko lehiaren finalak Amezketan. Larrunarri frontoian egingo dira, aurreko partida guztiak bezala, eta 17:00etan ekingo diote jardunaldiari. Antolakuntzatik finalen eguna aprobetxatu dute txapelketaren izena aldatzeko, eta hemendik aurrera Amezketako Txapeldunen Buruz Buruko Txapelketa deitu diote.

Izan ere, Amezketako Zazpi Iturri elkarte txapelketa antolatzen hasi zen Joxan Tolosa herri-tarrak buruz buruko txapela jantzi zuen urtean, bide batez, bera-ri omenaldi moduko bat eginez. Gaur egun, ordea, bada beste buruz buruko amezketar txapeldun bat, Jokin Altuna, eta hori ere kontuan hartu nahi izan dute, txapelketari izena aldatuz. Zazpi Iturri elkarte Beñat Belokik azaldu duenez, «txapelketa antolatzen hasi zen Xalton Zabala-ekin, zein Joxan Tolosa eta Jokin Altunarekin hitz egin dugu, eta adostasun batera iritsi ginen, ikusirik herrian beste txapeldun handi bat dugula. Zentzu horretan, herrian dugun arazo eder bati irtenbidea eman diogu txa-



Eneko Labaka eta Aztiz pilotarien arteko finalerdia une bat. ATARIA

pelketari izena aldatuz, eta bi txapeldunak barne hartuz».

Hiru final izango dira jokoan. Kadete mailan, Beñat Apezetxea goizuetarra eta Beñat Labaka azpeitiarra ariko dira. «Partida polita ikusteko aukera izango dugula uste dut. Apezetxea faborito da, erakutsi duen mailarengatik, eta duen gaitasunengatik. Labaka, berriz, oso pilotari azkarra da, eta bere jokoa egiten badu Apezetxea estutzeko moduan izango da», esan du Belokik.

Etorkizuneko mailan, Ekhi Irribarria aramarra eta Erreka elkarteko Oier Ariztegi izango dira aurrez aurre. «Partida oso parekatua izango da. Biek kolpe handia dute, eta aipatzekoa da Irribarria berez kadete mailakoa dela», zehaztu du Belokik.

Elite mailan izango da eskualdeko ordezkari bakarra, Eneko Labaka albizturtarra, eta Hodei Exposito astigartarraren aurka jokatu du. «Final hau ere parekatua ikusten dut. Joko aldetik

oso ezberdinak dira. Eneko klasea duen pilotaria da, eta Exposito bere indarrarengatik nabarmentzen da. Eneko pixka bat faborito izan daiteke, baina Exposito edozein irabazteko gai da», azaldu du Belokik.

Finalak ikusteko sarrerak 10 euro balioko ditu eta aurrez ez dira salduko. 16:15ean irekiko da leihatila frontoian bertan, eta 300 bat ikusle sartzeko aukera izango dela aurreikusten dute. Betidanik izan du ospea txapelketak, eta aurreko jardunaldietan sortu duen ikusmina areagotzea espero da finalean.

ZUZENEAN, 'ATARIA.EUS'-ETIK

Finalak Internet bitartez eman- go dira zuzenean, eta *Ataria.eus* helbidean jarraituko ahalko da emanaldia. TOLOSALDEKO ATARIA elkarlanean ari da antolatzaileekin, eta Asier Imaz lankidea ariko da narrazio lanak egiten, eta Jokin Altuna bera izango da komentarista.

Finalerdiak zehaztuta daude

Erredakzioa Irura

I. Gazteak Xare Irekiaren zein III. San Migel Xare Irekiaren finalerdiak zeinek jokatu duen jakina da. I. Gazteak Xare Irekian, A multzoan Urruñako Halsouet-Vila bikotea geratu da lehen pos-

tuan eta Montero-Isasa bigarren. B multzoan Ametsa elkarteko Oier Maiza eta Oier Iturbe geratu dira lehenengo, eta Mendizabal-Heras bikoa bigarren. III. San Migel Xare Irekiari dagokionez, A multzotik Larronde-Etxebest eta Lopetegi-Petrisans sailkatu

dira, eta B multzotik De Paredes-Funosas eta Borteyru anaiak.

Datorren asteburuan jokatu- ko dira finalerdiak. Ostiralean, irailak 24, 18:30ean, III. San Migel Xare Irekikoak, eta igandean, irailak 26, 11:00etan, I. Gazteak Xare Irekikoak.

Lehorrekoak, arraunaren goi mailan

Tolosaldeko Arraun Kluba Euskotren Ligan ariko da datorren denboraldian; eskualde guztiaren ongietorri beroa jaso dute Tolosan

Leyre Carrasco

Tolosaldea traineruak Euskotren Ligarako igoera lortu du asteburuan. TAK-ek Hondarribiaren lekua hartuko du beraz, igoera faseko bi egunetan gailendu ondoren. Eskualdeko ontziak larunbatean irabazi zuen Bermeon, eta igande goizean gauza bera egin zuen Portugaleten, bietan erlojuaren kontrako, Euskotren Ligarako jokoan zegoen plaza bakarra eskuratuz. Lehorreko eskualde bat lehiatuko da, hortaz, datorren denboraldian Euskotren Ligan, arraunaren maila gorenean.

Zortzi punturekin eskuratu zuen Tolosaldeak igoera faseko lehen postua. Deustuk eta Hondarribiak bost puntu lortu zituzten, baina bizkaitarrek bigarren-go postua eskuratu zuten bidasoatarrek baino denbora orokor hobeak baitzuten. Eta Cabok, Galiziako Ligako txapelduna, bi punturekin amaitu zuen azken postuan. Hondarribiak Euskotren Liga utziko du lau urteren buruan goreneko mailan egon ostean, eta bere lekua hartuko du, beraz, Tolosaldeak.

TAK-eko kideak oraindik sine-

tsi ezinik bazeuden ere, euren-gan sinisten jarraituko dutela adierazi zuen Aiora Sorozabalek, Tolosaldea traineruko patroiak, igoera lortu ostean: «Maila handia dago goran, eta nik uste oraindik ez dugula sinisten lortu duguna eta nora goazen. Joango gara pixkana ikusten eta ea gauzak uste baino hobeto joaten diren».

Kike Mokoroa TAK klubeko ordezkariak, bere aldetik, esan zuen garbi dutela iparra non dagoen: «Guk harrobia lantzen dugu, bateletan hor ibiltzen gara gero trainerura iristeko. Honek ez gaitu gure bidetik atera behar, apaltasunez eta aurrera begiratzuz».

HERRITARREN BABESA

Eskualdetik babesa eta berotasuna jaso dute denboraldi guztian zehar, eta igande arratsaldean ere ez zen hori faltatu. Izan ere, jendetza bildu zen Tolosako udaletxeko atarian Tolosaldeko traineruko kideei ongietorria emateko. Eskualdeko udalek ematen diote babesa traineruari, eta hainbat udal ordezkari izan ziren ongietorrian. Arraunlariak ere eskertu zuten babesa, eta



Tolosako Plaza Zaharrean TAK-eko kideak, eskualdeko udal ordezkariak eta zaleak, igandeko ongietorrian. LEYRE CARRASCO

hauek iaz eta aurtengoan lortutako bandera guztiak gogo handiz astindu zituzten udaletxeko balkoitik.

Arraunlariak ez ezik, Patxi Frances entrenatzailea ere guztiz hunkitu zen igandeko omenaldian. «Taldea handia da, arraunlari talde handia, giza talde handia». Hitz horiekin definitu zuen bere taldea entrenatzaileak. «Hau guztiaren atzetik lan handia dago, eta haiek dira klubaren eta taldearen buru ikusgarriak. Oso talde gaztea da, eta nire ustez taldeak aurrera egiten jarraitzen badu, orain arte lortu duena baino lorpen hobeak izan ditzake», gehitu zuen Francesek.

Mokoroak TOLOSALDEKO ATARIA-ri azaldu dioenez, entrenatzaileak hurrengo denboraldian ere jarraituko du Tolosaldea traineruan, eta arraunlari gehienek ere bertan segituko dute. Gorengo mailan lehiatu eta gozatzeo aukera izango dute eskualdeko ontziko kideek.



Tolosaldea traineruko kideak, Euskotren Ligarako igoera ospatzen. AGERREMEDIA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2021EKO IRAILAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztetxe, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



‘Ataria’-ren Udako Argazki Lehiaketa bozketa fasera pasa da; urriaren 6ra bitarte egongo da webgunean argazki gustukoenari bozka emateko aukera eta urriaren 8an jakinaraziko dira irabazleak


Bozkatzeko unea heldu da

Erredakzioa

Parte hartzeko epea bukatuta, beste fase batean sartu da ATARIA-ren Udako Argazki Lehiaketa. Argazki gustukoena bozkatzeko unea da orain, eta ondoren jakinaraziko dira bozka gehien jaso dituzten argazkien egileen izena, eta ondorioz, lehiaketako sariak irabazi dituztenak.

Aurtengo udan ateratako 100 argazki inguru iritsi dira aurtengo lehiaketara, beraz, beste behin harrera ona izan du ekimenak. Bada, urriaren 6ra bitarte bozkatu ahal da webgunearen bitartez, *Argazki Lehiaketa* atalean, eta argazki irabazleak eta hauen egileak urriaren 8an jakinaraziko dira *Ataria* astekarrian, *Ataria Irratian* eta *Ataria.eus* webgunean.

Sari ederrak eskuratzeko aukera dago aurtengo ere, Udako Argazki Lehiaketan parte hartuta. Epaimahaiaren saria lortzen duenak Opari Bonu Orlegia eskuratu du, hau da, bi pertso-



Epaimahaiaren saria 'Begira' argazkiak jaso zuen 2019 urteko lehiaketan.

narentzako bi gaueko egonaldia, logela eta gosariarekin, Nekatur Nekazturismo elkartearen eskutik. Bestetik, *Ataria.eus*-eko erabiltzaileen saria ere lortu ahal da, eta kasu honetan, bi pertsonarentzako otordua jasoko du

irabazleak Bidania-Goiazko Bailara jatetxean. Eta, azkenik, Atarikideen saria lortu ahal da, lehiaketan parte-hartu duten Atarikideen artean. Lixoneren bi saski zozkatuko dira guztien artean.

AGENDA

Erakusketak

Tolosa. Azken Muga erakusketa, Zaratetxen. Horrekin batera, basoan artelanak daude ikusgai.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearekin, prentzari begirada, eskualdeko albisteak, kirol tertulia, kolaboratzaileen tartak...

15:00. Amalurra. Ingurumenari buruzko saioa Imanol Garcia Landak gidatuta.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko arratsaldeko magazina.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

19:00. Elkarriketap

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Hurbilketa transexualitate-tera

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. I. Olarreaga.

Korreo, 2. 943 67 01 28.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro motela. Zeruan hodeiak izango dira nagusi eta tarteka euri pixka bat ere utziko dute. Zaparradak tartekatua eta ahulak izango dira. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoak antzeko mantenduko dira, 16-18 graduan joz goia.



Bihar. Giro atsegina. Goizean hodeiak ugariak izango dira eta ez da baztertzeko euria egitea. Arratsaldean ostarre politak zabalduko dira. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperaturak igo egingo dira, 19-20 graduan joz goia.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Urte askoan Jon!

Lizartzako lagunen partetik!
Osasuna eta maitasuna



BOZKATU GUSTUKOENA ATARIA.EUS-EN



Udako argazki lehiaketa



nekatur
'Opari Bonu Orlegia'
Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariarekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90
Epaimahaiaren saria



BAILARA
RESTAURANT
bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Goiazko Bailara jatetxean
iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Golatz. - 943681234
ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



lixoné
Cuidado Natural
Lixoneren bi saski zozkatuko dira.
cosmenticalixone.com
Ibaiondo industriagunea, 11. Aduna. - 943691280
atarikide-en saria